



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



AUZOA: ITURRIOTZ

Data	Hasiera ordua	Bukaera ordua
2018-09-30	19:00	21:20

BILDUTAKOAK:

Udal ordezkariak:				
Herritarrak:	Euskaraz: 20		Elebitan: 0	
	Emakumezkoak: 16		Gizonezkoak: 4	
	<30 urte: 7	31-50 urte: 5	51-65 urte: 4	>66 urte: 4

AKTA:

Gaia	Ekarpena eta iruzkinak
Aurkezpena	
Aurrekontuak 2020	<p>Hobarien inguruan biñetaren berrikuntza aipatu da. Alegia, lehen 25 urtetik gorako ibilgailuek hobaria eska zezaketen, baina orain 30 urtera igo da Udalaz gaindiko erabaki bat dela eta. Galdetu da ea motoentzako ere baden, eta erantzun da ibilgailu guztientzat dela.</p> <p>Bestalde, argitu da hobariak urtero eskatu behar direla urtarrilaren 1etik otsailaren 28ra.</p>
Oiartzun	<p><u>Mendiburu 14ko eraikina:</u></p> <ul style="list-style-type: none"><li>·Harmarriarekin zer egingo den galdetu da. Ondarea gordetzeko interesa.</li><li>·Eskerrak eman dira kultur etxearen eraikitze prozesuan kultur talde/eragileei parte hartzeko aukera emateagatik.</li><li>·Kudeaketari buruz galdetu da: nork? Nola? Azpeitiako ideia onena dela esan da (herrikoen artean). Hala ere, eraikitze prozesuan gestioatzeko modu ezberdinak aztertuko dira.</li><li>·Kultur Agenda bateratua sortzeko ideia atera da</li></ul>



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



	<p>·Irisgarritasun legea ea kontuan hartu den galdetu da. Desgaitasun fisikoetatik aparte besteak (gorreria, itsua, mutua..) ere kontuan hartu diren.</p> <p><u>Arizmendienea:</u></p> <p>·Turista asko ikusi da aurten herrian eta haiei zer eskaini ongi ikusi da turismo bulegoa egitea</p> <p>·Kanpokoak integratzea zaila da, hori egiteko modu bat... → 3 hilabetero harrera plana egiten da hemen erroldatzen den jendearentzat.</p> <p><u>Etxebizitza:</u></p> <p>·Dotazionalak: bertan bizitzeko epe bat dute. 26 etxe horietatik motak jar daitezke: batzuk gazteentzat, beste batzuk zaharrentzat...</p> <p>·Alokairu publikokoak: puntuaketa bat dago izena emandakoen artean. Adb: familia ugaria izatea, diru-sarrerak... Horren arabera esleitzen dira.</p> <p>Etxebiden izena emanda egon behar da. Oiartzungo etxebizitza bulegoa Mamuteko eraikinean dagoela gogorarazi da.</p>
<b>Auzoa</b>	<p>·Auzoan sozializatzeko arazoak: taberna itxi zenetik ez dago non elkartua. Etxe berrien azpian taberna bat hartzea udalak eta lehiaketara atera → zaila da</p> <p>·Aparkalekuen arazoa → marra txuriak jarri aparkalekua mugatzeko eta bestetan horiak aparkatu ezin dela adierazteko. Erantzuna: aparkalekuak aztertuko dira eta birmoldatu edo egokituko dira.</p> <p>·Karabanak eta furgoneta luzeak: <i>biñeta</i> ordaintzen dute bai, baina horrek aparkalekuekin ez du zerikusirik. Regulatu beharko da agian bolumenaren arabera.</p> <p>Kamioiak: espaloiairen gainean edo 4 aparkaleku hartuta horizontalean</p> <p>Kotxe konkretu batzuk leku desegokietan aparkatu eta ikuspena kentzen dute</p> <p>Aparkalekuak arazo diren tokiak: Argiñene kalea, Juanene baserriaren aurrean beiraren edukiontziairen aurrean, Gure ametsa iskina, Perotxene-Etxeberri artean, Argiñene kaleko bankoen aurrean aparkatu eta ezin da eseri, Argiñene-Ozentzio artean, Argiñene kalearen bukaera, Miñene atzean</p> <p>·Elika inguruan kotxeak uzteko tokia: inviker inguruan</p> <p>·Skate Parkera joateko non aparkatu?</p> <p>·Argiñene kaleko amaieran, harrera etxeko langileak direla eta, kotxe gehiago etab. ezin dira batzuetan ia garajera sartu ere egin. Gainera, oinez ibiltzeko zailtasunak.</p>



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



- Anerreko zubia: neurriari buruz galdetu da, ea traktorea pasako den.
- Garmendiko maldara zebrabidea jartzea galdetu da (Foru Aldundiko errepidea)
- Moteltzeko kroxxak:
  - Ibarreko zebrabidea: hara iristean moteltzeko kroxxak eskatu dira
  - Soro aurreko zebrabidean iristean moteltzeko kroxxak eskatu dira
  - Altzibartik Iturriozko errotondara iristerakoan kroxxak eskatu dira, jendea ez da gelditzen eta susto pare bat egon da (kamioiak, autobusak.. ziztu bizian sartzen dira errotondara begiratu gabe ezkerretik nor datorren)
  - Frontoi parean, Zirauki kalea
- Iturriotz kartela: Iturriozko sarrera irteeretan jartzeko baimenik oraindik ez dugula aipatu da. Horren aurrean lehen bezala Soroko paretan jartzea proposatu da.
- Igerobitxiki baserria eskaini da terrenoa ematera espaloia egiteko. Lotura behar du Iturriotzekin edo Ibarrekin
- Ugaldetxo-Iturriotz lotzeko espaloiaz galdetu da
- Auzo lokala → bilera aparte bat egin behar da
  - Giltzaren kopiak neurtu behar dira, seguridadeko kopiak egingo dira eta horrela izendatuta egongo da giltza bakoitza zeinek duen, ez edozeinei. Zerrenda egingo da giltza nork duen
  - Agenda egin
  - Garbiketa antolatuta
  - Bilerak solapatzen dira, ez dago komunikazioa lokalaren erabiltzaileen artean
  - Arautegia egin behar da (bakoitzaren eskubide eta betebeharrak). Altzibarko ideia agian?
    - Almazenean ez dago lekua. Etxe berrietan ea lokalik egongo den galdetu da
- Korreoseko buzoia toki desegokian dago. Jaietan arrazoi zuten gauzak utzi zirela aurrean baina hor ez dago ongi, agian beste leku bat bilatu behar da
- Zuberoatik behera joatean ispilua gaizki dago orientatuta, ez du laguntzen
  - Zuberoatik gora, bidezarra kalearekin kruzean ispilua behar da
- Larrialdi gunearen eta olioaren/beiraren edukiontzia aurrean ispilua
- Hondakinen bilketa
  - Ordutegia aldatu daiteke? Beti ordu batetan pasatzen delako galdetu da. Esan da hori antolatzea zaila dela.



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



·Espaindi baserrian batzuetan ez dute jasotzen, argi gutxi dago eta biltzaileek ez dute ikusten. Larrialdi guneko giltza eskatu da baina ezin dela azaldu da

·Dorre etxeko atean kartelak jartzea pena bat da, zelorekin hondatzen ari da

·Baserrien izenak jartzea eskatu da gutxienez baserrietan bertan

·Herri bideak errekuaratzeko edo zaindu/garbitzeko nahia azaldu da

·Elikako baratzeen parean eta Makutsora doan bidean belarra hazi da eta oinezkoek errepidera irten behar dute aurrera egiteko

·Urarekin arazoak:

- Idi demako estolderia garbitzeko eskatu da, beti ataskatzen da
- Tronpeo eta bidegorriko kruzean putzua egiten da
- Soroko iturria garbitzeko eskatu da

·Argiteria: tronpeoko maldan gehiago jartzeko eskatu da, baita tronpeotik Makutsora ere.

·Auzoko garbiketa:

- Zakarrontziak txikiak edo gaizki erabiliak daude, jendeak etxekoa botatzen baitu. Horregatik ez dira gehiago jartzen
- Juanene aurrean dagoen bidrioaren edukiontzia eta posteen ingurua oso zikina, kristal puskekin
- Xorrolako geltokia zikina
- Kale garbiketaren inguruko lantaldea, kontzientziazioa sortzeko taldea ongi ikusi da
- Larrialdi gunean denetik dago, mikroondasak eta guzti. Bizilagun asko sartzen dira giltza eduki behar ez luketenak. Agian atean jarri zer bota daitekeen hor eta zer ez

·Haurren pardelak: herri batzuetan diru laguntzak ematen dira telazko pardelak erosteko (Donostian, Hernanin) eta horrela errefus gutxiago sortu

·Arraindegiko poto gehiago egingo dira? Batzuk nahi dituzte. Alcampon ez egitearen aldeko kezka

·Txakurrak: arautegirik badago? Atea ireki eta martxa egiten dute, auzotik paseatzen dira eta kaka edozein lekutan egin. Esan da arautegiaren arabera lotuta joan behar dutela. Hainbat arazo daude: solte dabilzala, kakak, arriskutsuak ere solte, Bidegorrian ere bai.



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



- Fortalezatik aurrera ez dago iturririk meategiak arte eta bertan ez tratatua jartzen du. Tartean ezin da iturririk jarri?
- Arditurriko komunak askotan itxita daude → meatzeen ordutegia dute
- Argiñene kaleko etxeen atzean, Miñene atzean terreno bat dago udaletxearena bertan banko bat egiteko ideia atera da
- Iturri Berri elkartearen ondoan: etxeak egin daitezke, ez dakigu oraingoz noiz egingo diren. Ingurua zikina dago, erreka ez da ikusten, jendeak zakarra botatzen du eta bertako tunela ere ez da ikusten
- TDT aldaketa: Espainiako Gobernutik datorren informazioa Eusko Jaurlaritzatik pasako dela eta hori Udaletxeetatik bideratuko da (nola egin eta diru laguntzen informazioa). Udalean galdetu beharko da zerbait bidali duten.
- Haurrentzako parke ezberdinak: egurrezkoa, tirolinak, esparruka banatuak... (Lezo, Usurbil, Gaztaño)
- Bengoetxea plaza behean, parkearen ondoan bankoak konpondu behar dira. Zarranbiloa konpondu da eta eskerrak eman dira
- Bidegorrian bizikletak konpontzeko makina matxuratuta dago eta aspalditik gainera. Agian kiroldegian jartzea hobe.
- Tronpeoko trafikoa regulatu behar da: bi zentzutara oinezkoen arriskua batzuetan ikaragarria. Aurrera begira norabide bakarrean jarri beharko dela aipatu da, eta Elizaldeko antolaketarekin lotua. Horrek, ziurrenik eragingo du Tronpeo goitik beheerako norabidekoa izatea. Behetik gora nahiago du jendeak.
- Adurizeko espaloia: Adurizekoak espaloi erdi-erdian aparkatzen du oraindik.
- Xorrola eta Taxibusaren ordutegiak oso ongi.



## 2020KO AURREKONTUAK: AUZOTARREKIN ELKARHARTZEN



### BALORAZIO ORRIA:

Hizlariak: bileran zehar emandako azalpenak	9,25
bilera ongi gidatu da	9,25
Bileran erabili den metodologiaren egokitasuna	8,69
Auzotar kopurua	5,47
Auzotarren partehartzea (ekarpenak egiten)	8,33
Saioa probetxugarria izan al da?	8,36
Egunaren egokitasuna	8,64
Orduaren egokitasuna	8,79
Lekuaren egokitasuna	8,53
<b>Batezbestekoa</b>	<b>8,37</b>